

ERRESKATE EKONOMIKORAKO FUNTSA SUSTATZEKO NEURRIEN PROGRAMA 2022

Alokairuen kobrantza atzeratzea

Gobernu Kontseiluak, apirilaren 12ko bilkuran, ekonomia dinamizatze, enplegua mantentzeko eta pertsona eta familia ahulenei laguntzeko, neurri sorta bat ezartzea onartu du eta, horrela, Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko, 2 pakete espezifiko **sortzea** adostuz: erreskate Sozialeko Funtsa eta **Erreskate Ekonomikoko Funtsa**.

Zehazki, Enpresen arloan, Erreskate Ekonomikoko Funtsetan barruan, PARKE TEKNOLOGIKOekin eta SPRILUR Taldeko sozietateekin sinatutako kontratuei dagozkien alokairuen kobrantza atzeratzea aurreikusten da.

HELBURUA: Industrial guneetako alokairuen kobrantza atzeratzea.

Neurri hori garatze aldera, SPRILUREk eta bere taldeko sozietateek neurri hori hartzeko baldintza orokorren eta ezarritako prozeduraren berri eman dute:

ONURADUNAK: SPRILUREkin edo haren taldeko edozein sozietaterekin errentamendu-kontratu simple bat edo erosteko aukera duen errentamendu-kontratu bat sinatuta eta indarrean duen pertsona fisiko edo juridiko oro, eta atzerapen hori eskatzen duten egunean, kuoten ordainketak egunean dituen.

ATZERAPENAREN EPEA: 3 hilabete, beste 3 hilabete gehiagotan luzatzeko aukerarekin.

ATZERATUTAKO KUOTAK: Edonola ere, SPRILUREk eta bere taldeko sozietateek, kuotak kobratzeko eskaerak eta geroratze-emakidak alde batera utzita, hileroko fakturaz jarraituko dute sortutako zenbatekoak.

ATZERAPENAK ESKATZEKO PROZEDURA:

1.- **Atzerapen eskaera egiteko epea** jakinarazpen honen egunetik **2022ko ekainaren 30era arte hasiko da**, epe hori geroago luzatu ahal izango den arren.

2.- Eskatzaileak idazki bat bidali beharko dio errentatzaileari (SPRILUR edo taldeko sozietateari) (ahal dela, posta elektronikoz, eskaeren izapidetzea arintzeko), hurrengo 3 kuoten ordainketa geroratzeko eskatuz, eta beste hiru gehiago egiteko aukera emanez, eskaera justifikatzeko memoria labur batekin batera (orrialde 1 gehienez).

3.- SPRILUREk edo taldeko sozietateak eskaera jaso duela adieraziko du, eta ahalik eta lasterren aztertuko du, eta geroratzearen nondik norakoak erabakiko ditu.

4.- SPRILUREk edo taldeko sozietateak, aldez aurretik eskatzailearekin adostuta, kuotak geroratzeko erabakia hartuko du, eta, horretarako, beharrezkoak diren agiriak sinatuko ditu.

5.- Oro har:

- Errentamendu-kontratu sinpleen errentamendu-kuotak geroratzean, geroratzeko kuotak zati berdinetan berreskuratuko dira kontratuaren indarraldiko gainerako hilabeteetan, edo horretarako onartutako ordainketa-egutegiaren arabera.
- Hala ere, urte anitzeko errentamendu sinpleko kontratuetan, geroratzeko kuotak berreskuratzeko epeak, lehenik eta behin, eta jabetzaren irizpidearen arabera, kontratu bakoitzaren berezko ezaugarriak hartuko ditu kontuan (indarraldia, batez ere); nolana ere, berreskuratzeko gehieneko epea 4 urtekoa izango da.
- Era berean, kontratua amaitu arte geratzen den epea urtebetetik beherakoa bada, alderdiek dagokion luzapena adostu ahal izango dute. Luzapena ezin izango da, inola ere, jatorrizko kontratuaren indarraldia baino luzeagoa izan.
- Erostea aukera ematen duten errentamendu-kontratuen errentamendu-kuotak geroratzean, geroratzeko kuotak berreskuratuko dira, kontratuaren indarraldiko gainerako hilabeteetan, ordainketa-egutegiaren edo horretarako onartutako finantzaketa-taula berriaren arabera.
- Geroratzeko kuotek, kontratu mota guztietan, ez dute inolako interesik sortuko.

Guzti honi buruzko edozein kontsulta edo argibide behar izanez gero, idatzi sprilur@spri.eus helbide elektronikora edo errentamendu-kontratua duen sozietatearen telefonora.

2022ko maiatzaren 6an